

Nik PATXI LAPATZA GORTAZAR BENGOA, Hernaniko udaleko Idazkariak honako hau

ZIURTATZEN DUT

OSOKO BILKURA

HERNANIKO UDALAK 2025EKO EKAINAREN 19AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

ALKATEA:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

ALKATEORDEAK:

Patxi Iburguren Etxeberria
Itsaso Lekuona Legorburu
Ainara Atorrasagasti Urizar
Aitor Lukas Solano

ZINEGOTZIAK:

Axier Mingo Arruabarrena
Amaia Miner Canflanca
Aitor Huizi Izagirre
Urko Lazkoz Fernandes
Oier Agirresarobe Lizaso
Kistiñe Rodríguez Polaina
Andoni Amonarraiz Gómez
José Antonio Cuesta Solé
Mikel Gurutzeaga Zubillaga
Ismael Ganchegui Gonzalez
Ricardo Crespo Rubio
Jaione Aristregi Cao
Lurdes López Gorrotxategi

IDAZKARIA:

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

KONTU-HARTZAILEA:

Aitor Sarasola Salaberria

2025eko ekainaren 19an osoko bilkura egin da udaltxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

Gai zerrenda:

- 1. 2025-05-27KO OSOKO BILKURAREN 5-2025 AKTA ONARTZEA.**
- 2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR1230 DEKRETUTIK 2025DEKR1498 DEKRETURA.**
- 3. HERNANIKO GALARRETAKO BIDE SISTEMA OROKORRA ETA ZERBITZUETAKO HARTUNE OROKORRAK ERAIKITZEKO 2. FASEAREN OBRA KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ESPEDIENTEAN, ALKATEARI ESKUORDETZEA OBRA-KONTRATU HORREN KUDEAKETARAKO EGINTZA GUZTIAK.**
- 4. HERNANIKO UDALAK XANGORIN KOOP. ELKARTE TXIKIAREKIN DUEN HITZARMENA LUZATZEA**
- 5. HERNANIKO ZENBAIT UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZU-KONTRATUAREN LUZAPENA ONARTZEA.**
- 6. HERNANIKO UDALEKO ALDI BATERAKO BITARTEKO FUNTZIONARIOEN IZENDAPENA EDOTA ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN KONTRATUAN PROBALDIAREN ARAUDIA ONARTZEA.**
- 7. MOZIOA ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUA: «ESPAINIAKO GOBERNUARI NEURRI HAUEK HAR DITZALA ESKATZEKO ISRAELI, PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUEI ETA**

**HERRITARREI DAGOKIENEZ».****8. MOZIOA EAJ-PNV ETA PSE-EE UDAL****TALDEEK AURKEZTUA «PALESTINA».****9. ESKARIAK ETA GALDERAK.****1. 2025-05-27KO OSOKO BILKURAREN 2025-5 AKTA ONARTZEA.**

Alkatea: Arratsalde on, seiak badira eta ekaineko ez-ohiko deialdian egin dugun osoko bilkurari emango diogu hasiera.

Betiko moduan, lehen puntutzat aurreko osoko bilkuraren akta onartzea izango genuke. Aktaren inguruan zerbait aipatzeko? Ez badago ezer, onartutzat emango dugu.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR1230 DEKRETUTIK 2025DEKR1498 DEKRETURA.

Alkatea: Bigarren puntua ere osoko bilkura guztietara ekartzen den puntua da: dekretuen berri ematea. 1.230 zenbakidun dekretutik 1.498 zenbakidun dekreturako zerrenda pasa zaizue. Galderarik edo zalantzaren bat hauen inguruan? Ez badago ezer, aurrera egingo dugu.

3. HERNANIKO GALARRETAKO BIDE SISTEMA OROKORRA ETA ZERBITZUETAKO HARTUNE OROKORRAK ERAIKITZEKO 2. FASEAREN OBRA KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ESPEDIENTEAN, ALKATEARI ESKUORDETZEA OBRA-KONTRATU HORREN KUDEAKETARAKO EGINTZA GUZTIAK.

Alkatea: Hirugarren puntua erabakitzeko lehenengo gaia da. Kasu honetan, Hernaniko Galarretako bide sistema orokorra eraikitzeo bigarren fasearen obra kontratazio prozedura Tokiko Gobernu-Batzarrari eskuordetzea jartzen du gai-zerrendan, baina gaur batzorde informatzailean irizpena aldatu egin da. Egingo duguna da gaia pixka bat zein den azaldu.

Galarretako sistema orokorraren bigarren fasearen obra prozesua edo esleitzeko prozesua abian jarri genuen. Gogoratuko zarete orain dela aste batzuk pleno batera ekarri genuela prozesu hori bertan-behera gelditzea pleguetan akats bat egon zelako. Akats horiek zuzendu ziren eta prozesua berriz ere hasi genuen. Kontua da prozedura hori amaitzeo dagoela, hiru enpresek aurkeztu dituzte beraien eskaintzak, bai tekniko eta bai ekonomikoak. Ebazpen proposamena kontratazio mahaiak egin du Galarreta aldi baterako enpresa-elkartearen aldekoa. Bai eskaintza tekniko eta ekonomiko onenak edo puntuazio gehienak lortu dituztenak beraiek izan direlako honetan.

Kontua da 4 milioi inguruko kontratu honek Udalaren aurrekontu errekurtsioen %10 gaintitzen duenez, esleipena egitearen eskumena osoko bilkurarena da. Honek esan nahi du, hilabete honetan ez-ohiko deialdiz egiten ari garenez gaur osoko bilkura, eta kontratazio mahaiak jada esleipen proposamena egin du, hainbat egunetako epea eman zaio enpresari dokumentazio batzuk entregatzeko, eskumena osoko bilkuraren gain uzten baldin badugu, uztaila bukaerara arte ezin dugula esleipena egin ofizialki, orduan hor aste dezente galduko ditugula obra hasteko.

Orduan, erabaki honetan proposatzen duguna, nahiz eta berez osoko bilkuraren eskumena izan kopuru ekonomikoagatik, alkate dekretu bidez egin ahal izatea esleipen hau eta horrekin egingo genukeena da obra hasiera azkartu. Garrantzitsua da aurretik ere azaldu dugun bezala, honek azkenean, sistema orokorreko obra honek, besteak beste, bide gorria ere ekarriko du,

Galarretatik Ekogunera arte Hernaniko Udalak gauzatuko duen obra da eta Errekaldetik Ekogunera arte Gipuzkoako Foru Aldundiak. Orduan, denboran ere bateratsu joatea garrantzitsua da obra bere osotasunean denbora bertsuan bukatu ahal izateko.

Beraz, tramite burokratiko horietan azkartasuna irabazteko erabaki bat da.

Ez dakit ondo azaltzea lortu ahal dudan. Honen inguruan galderarik, zerbait aipatzeko?

Ricardo Crespo: *Batik bat aktan gelditzearren, idazkariari galdetu diot ea hau legeak horrela ahalbideratzen duen, berak uste dut baietz esan didala, beraz...*

Alkatea: *Idazkariak hartuko du hitza.*

Idazkaria: *Legeak uzten dio kontratazio organoari eskuordetzea egitea bai Tokiko Gobernu Batzarrari, baita Alkateari ere. Besterik ez.*

Alkatea: *Eskerrik asko. Esan bezala, behin betiko ebazpena egiten denean ere horren berri emango dugu, baina esan bezala, hiru enpresak aurkeztu dituzte proposamenak eta kontratazio mahaia esleipen proposamena Galarreta aldi baterako enpresa-elkartearen aldekoa egiten du.*

Honekin bozkatu egingo dugu. Hernaniko Galarretako bide sistema orokorraren bigarren fasearen eskuordetza Alkatearen esku uztearen aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO EBAZPENA

Hernaniko Galarretako bide sistema orokorra eta zerbitzuetako hartune orokorrak eraikitzeko 2. fasearen obra kontratatze espedientearen izapidetzeari ekin zitzaien Hernaniko Udaltzaren 2025eko apirilaren 29ko ohiko osoko bilkuran.

Aztertu da Sestra Ingeniería y Arquitecturak idatzi duen «Galarretako bide sistema orokorra eta zerbitzuetako hartune orokorrak eraikitzeko proiektu gaurkotua eta aldatua, 2. fasea» proiektuan egindako aldaketa eta Hirigintza Saileko arkitekto teknikoak emandako onespina.

Udalaren jarduna azkarragoa eta eraginkorragoa izan dadin udako datetan, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.2.b) artikulua udalari ematen dizkion ahalmenak erabiliz, beharrezkotzat jotzen du kontratu horren kudeaketa-egintzak eskuordetzan ematea. Legeak Osoko Bilkurari ematen dio eskumen hori, eta eskuordetzea Tokiko Gobernu Batzarraren alde egingo da.

Ikusi dira espedientea osatzen duten dokumentuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen 116. artikuluan jasotzen direnak eta lege horretako bigarren xedapen gehigarria. Lege beraren 117. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda,

Kontuan hartu da Antolaketa batzordeak 2025eko ekainaren 12an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko osoko bilkurak aho batez erabaki du:



Bakarra. Alkateari eskuordetzea Galarretako bide sistema orokorra eta zerbitzuetako hartune orokorrak eraikitzeko 2. fasearen obra-kontratua kudeatzeko egintzei buruzko osoko bilkuraren eskumena, kontratu honek aurrekontuko errekurtsio arrunten % 10 gainditzen baitu, honako egintza hauek izan ezik: prezioak berrikustea; prestazioen oreka ekonomikoa berrezartzea; enpresak batzea, azkentzea edo eskualdatzea; kontratua lagatzea edo horien moduko beste ebazpen batzuk.

4. HERNANIKO UDALAK XANGORIN KOOP. ELKARTE TXIKIAREKIN DUEN HITZARMENA LUZATZEA.

Alkatea: *Honekin, laugarren puntura pasako gara. Hernaniko Udalak Xangorin kooperatiba elkarte txikiarekin duen hitzarmena luzatzea da eta Axierrek azalduko digu.*

Axier Mingo: *Labur-labur, gogoratzen baduzue, 2021ean jada Xangorineko kooperatiba elkarte txikiarekin hitzarmena egin zen. Hitzarmen honen xedea zen Joxe Mari Auzmendi beka hezkuntza proiektua sustatzeko diruz laguntzea eta hori da batzordetik pasa genuena. Luzapen hori onartzea gaurkoan plenotik pasa behar du.*

Alkatea: *Eskerrik asko, Axier. Honen inguruan zerbait aipatzeko? Zuzenean bozkatzera pasako gara, beraz. Hernaniko Udalak Xangorin kooperatiba elkarte txikiarekin duen hitzarmena luzatzearen aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.*

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO EBAZPENA

Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak 2021eko maiatzaren 25ean Xangorin Koop. Elkarte Txikiarekin hitzarmena sinatzeko onarpena eman zuen, aurretik 2021eko maiatzaren 13ko Herritarrentzako Zerbitzuak batzorde informatzailera eraman zen gaia.

Hitzarmen horren xedea Joxe Mari Auzmendi beka, hezkuntza proiektuak sustatzeko sortua, diruz laguntzea zen.

Iraupenari dagokionez, hitzarmenak honela dio:

"Hitzarmena bi urtetik behin berrikusiko da eta gehienezko iraupena 4 urtekoa izango da (2021-2024), beste 4 urtez luzagarria, alde bietakoren batek kontraktorik adierazten ez duen bitartean".

Dirulaguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kontsignazioa:

Zenbatekoa: 14.000,- €

Kontusaila: 02.481.02.335.00

Bestalde, 2023ko otsailaren 2ko Herritarrentzako Zerbitzuak batzorde informatzaileak proposatua eta ondoren 2023ko otsailaren 9ko Tokiko Gobernu Batzordean onartua Hernaniko Udalak Xangorin Koop. Elkarte Txikiarekin sinatutako hitzarmenaren ondoko aldaketa egitea onartu zen:

"Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak:

Dirulaguntzaren % 60 (8.400 €) saritua hautatutakoan ordainduko da.

Dirulaguntzaren % 40 (5.600 €) lehen zatia zuritutakoan ordainduko da.

Dirulaguntzaren justifikazioa:

a.) Epea: hurrengo urteko martxoaren 15a (beranduenez).



b.) Diruz lagundutako jardueraren memoria, ondoko gutxieneko edukiarekin: Proiektuaren azalpena; burutu beharreko lana zein fasetan dagoen eta zein den lana amaitzeko aurreikusten den lan-kronograma.

c.) Egindako jardueren kostua justifikatzeko balantze ekonomiko laburtua. Gastu guztiak egin gabe baleude, proiektua bi ikasturtekoa delako, gastu horiek egingo direla frogatzen duten agiriak.

d.) Gastu eta sarreren zerrenda sailkatua, gastu kontzeptuen arabera antolatuta. Zehaztuta izango ditu: hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta ordainketa data. Gastu batzuk egin gabe baleude, proiektua bi ikasturtekoa delako, gastu horiek egingo direla eta noiz egingo diren frogatzen duten agiriak. Zerrenda horren gain, Udalak burutu beharreko ikuskatze eta kontrol lanetarako, ikuskaritza eta laginketa-teknikak erabiliko ditu.

e.) Kontabilitate ekitaldia amaitu ondoren, Ogasunaren aurrean aurkeztutako "Sozietate Zerga" aitortpenaren kopia, 6.c. atalean aitortutako datuekin bat egin behar duena.

f.) Jasotako beste diru laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa, xedea eta jatorria adierazita.

Hori horrela, Euskara delegatuak Hernaniko Udalak Xangorin Koop. Elkarte Txikiarekin duen hitzarmena luzatzeko proposamena egin du.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko maiatzaren 29ko bilkuran aho batez emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Hernaniko Udalak Xangorin Koop. Elkarte Txikiarekin duen hitzarmena luzatzea beste lau urtez (2025-2028).

5. HERNANIKO ZENBAIT UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZU-KONTRATUAREN LUZAPENA ONARTZEA.

Alkatea: Honekin bosgarren puntura pasako gara. Kasu honetan Hernaniko zenbait udal eraikinen garbiketa zerbitzu kontratuaren luzapenari dagokiona da. Zaintzen enpresarekin 2021ean onartu genuen kontratua egitea. Urtez urte luzatzen den kontratua da. Kasu honetan azkeneko urteko luzapena egitea onartzea izango litzateke. Ekainean hartzen dugu erabakia, baina luzapena, berez, izango litzateke 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era. Beste urtebeteko luzapena. Hau izango litzateke azken luzapena kontratu honi dagokionez, eta datorren urtean beste erabaki batzuk hartu beharko lirateke.

Txosten tekniko, juridiko eta ekonomikoak badaude honen inguruan eta hori da proposatzen duguna, kontratazio edo kontratu honi dagokion azken prorroga hori gauzatzea edo onartzea.

Honen inguruan zerbait aipatzeko?

Jaione Aristregi: Kaixo, arratsalde on.

Gure taldea zerbitzuak esternalizatzearen aurka agertu da beti, hala nola gaur osoko bilkurara datorrena edo etxez etxeko arreta zerbitzua, ezker abertzaleak duela urte batzuk pribatizatutakoa. Podemos-Orain Hernani beti egon da aurka, eta aurka jarraitzen dugu. Zerbitzu horiek, erabat feminizatuak dira eta babestu egin behar dira. Harrigarria da Hernani Burujabe bezalako proiektu anbiziotsu eta berritzaile bat izanik, oraindik ere zerbitzuak kanporatzen jarraitzea. Eta nori, eta Florentino Pérez mafiosoari.



Badirudi gobernu-talde honek gauza bat esaten duela, baina gero kontrakoa egiten du. Gure botoa guztiz kontrakoa izango da.

Alkatea: Eskerrik asko, Jaione. Galdera bat, Elkarrekin-Podemosek zer egin du esaten duen horren alde? Zer pauso eman ditu?

Jaione Aristregi: laz esan genuen bezala, Garbitaniako estatutuak alda litezke eta zerbitzua sartu, FCCrekin egin genuen bezala. Badakigu ez dela derrigorrezko zerbitzu bat, baina, adibidez, haur eskoletan, eskoletan egiten dena, hori nahitaezkoa da. Orduan, Garbitaniako estatutuak FCCrekin egin genuen bezala aldatuko bagenu, aztertzeo aukera bat izan genezake.

Alkatea: Ez diozu galderari erantzun, zer egin ote duzuen. Garbitaniarena proposatu duzu...

laz kontu-hartzaileak azaldu zizuen Udalak zuzenean kontratatzeo edo nolabait berreskuratzeko eduki dezakeen arazo bera eduki dezakeela juridikoki Garbitaniak ere. Enpresa publiko bat delako eta lege berdinei erantzun behar dielako.

Esaten nuen Elkarrekin-Podemosek zer egin duen urte honetan guztian, beti oposizio hori adierazteaz gain. Gogoraziko dizuedalako, bilera baterako deialdia egin nizuela duela urtebete baino gehiago gai honen inguruan, erantzunik ez nuela jaso bilera hori egiteko, hori onartu zenuten plenoan, ezin izan zenutela hainbat arrazoi medio. Eta urte osoa pasa da. Urte osoa pasa da Udal Gobernuaren honen inguruan lanean aritu dena eta zuek proposamenekin ez zarete etorri.

Garbitaniarena aipatzen duzue. Baina berriz esango dut, guk ere planteatu baitugu hori eta zuei, aurretik izandako beste bilera batean adierazi genizuen, arazo berdin-berdinak dituela Garbitaniak sektore publikoko enpresa bat izanik, edo Hernaniko Udalak, berriz birmunizipalizatzeko zerbitzu hau. Txosten juridiko eta ekonomiko aldekorik ez genukeela izango. Eta, gehiago esango dut, aipatu nuenean aldeko txosten juridiko eta teknikorik gabe prest egongo zinatekete? Eta zuen erantzuna izan zen, «bueno, ez». Hortxe utziko dut.

Honekin bozkatzera pasako gara. Hernaniko hainbat udal eraikinen garbiketa zerbitzu kontratuaren luzapena onartzearen aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeak. Kontrako botoak? Elkarrekin-Podemos udal taldea. Honetaz, beste urtebeteko luzapena egitea onartzen da.

Bozketaren emaitza:

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	16	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Iburguren Etxeberria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano. 6. Axier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes.

		10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodríguez Polaina. 12. Andoni Amonarraiz Gómez. 13. José Antonio Cuesta Solé. 14. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 15. Ismael Ganchegui González. 16. Ricardo Crespo Rubio.
KONTRA	2	1. Jaione Aristregui Cao. 2. Lurdes López Gorrotxategi.
ABSTENTZIOAK		

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO EBAZPENA

Aztertu da 2021eko irailaren 18an Hernaniko Udala eta ZAINTZEN SAren artean Hernaniko zenbait udal eraikinen garbiketa egiteko formalizatutako zerbitzu-kontratua. Kontratuaren hasiera data 2021ko urriaren 1ean finkatu zen.

Kontratuaren iraupenari dagokionez, lau urtez luzatzeko aukera aurreikusi zen kontratuan eta bera arautzen duten administrazio baldintza zehatzen agirian

Orain arte hiru luzapen izan ditu kontratuak:

1. luzapena: Osoko Bilkurak 2022ko ekainaren 23an egindako bilkuran onartu zen, 2022ko urriaren 1etik 2023ko irailaren 30 arte
2. luzapena: Osoko Bilkurak 2023ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran onartu zen, 2023ko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30 arte.
3. luzapena: Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 18an egindako bilkuran onartu zen 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30 arte.

Orain, Administrazio baldintza zehatzen agiriaren 2. klausulan ezarritakoarekin bat eta SPKLren 29 artikulua dieonari jarraiki, laugarren luzapena egitea proposatu du Udal Zerbitzuen saileko arduradunak. Hortaz, hau izango da kontratuaren azken luzapena.

Aztertu dira Udal Zerbitzuen saileko arduradunak kontratuaren luzapena proposatuz egindako txostena eta Kontratazio eta Ondareko zerbitzu juridikoek eginiko txostena.

Kontuan hartu da Toki Garapen Batzordeak 2025eko ekainaren 12ko bilkuran gehiengoz emandako irizpena.

Kontuan hartu dira bozketaren emaitzak.

Horiek horrela, osoko bilkurak gehiengoz erabaki du:

Lehena. ZAINZEN SArekin Hernaniko zenbait udal eraikinen garbiketa egiteko 2021eko irailaren 18an formalizatutako zerbitzu-kontratuaren azken luzapena onartzea, zehazki 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30 arte.

Bigarrena. Kontratuaren esleipenduna den ZAINZEN SAK bere garaian hartutako eginbeharrak beteko zituela bermatzeko jarri zuen behin betiko bermea mantentzea.

6. HERNANIKO UDALEKO ALDI BATERAKO BITARTEKO FUNTZIONARIOEN IZENDAPENA EDOTA ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN KONTRATUAN PROBALDIAREN ARAUDIA ONARTZEA.

Alkatea: *Seigarren puntura pasako gara. Seigarren puntu hau gai zerrendan sartu badugu ere, gai zerrendarekin batera dokumentazioa ez zela bidali astelehenean egin zelako pleno honetarako deialdia eta gaur bertan irizpena egin delako antolakuntza batzorde informatzailean. Puntu hau da Hernaniko Udaleko aldi bateko bitarteko funtzionarioei edo aldi baterako lan-kontratudun langileei probaldi bat ezartzea. Hau da, edozein karrerako funtzionario, hau da, jada plaza egonkortuta duen funtzionarioei legez probaldi bat jartzen zaie (legeak hala aipatuta), baina behin-behinean edo interino datorren funtzionarioei edo lan-kontratudun langileek ez dute probaldirik.*

Orduan, honek hainbatetan kezka sortzen du eta Komitearekin hau lantzen aritu gara hainbat hilabetetan zehar eta adostu dugu, nolabait ere, interino edo behin-behinean datozen langile horiek ere probaldi bat izatea. Eta hori barne araudi moduan onartzea eta hilabeteko probaldia jartzea langile hauei edo egoera honetan dauden langileei. Nolabait ere karrerako funtzionarioek duten bezala, aldi baterako datozen langile hauek ere izatea. Esan bezala, hilabeteko probaldia da proposatzen duguna eta Komitearekin adostutako neurria da.

Ez dakit honen inguruan zerbait aipatzeko badagoen.

Ricardo Crespo: *Bakarrik adieraztea Komitea ere ados baldin badago gu ere ados, aldeko boza emango dugula.*

Alkatea: *Eskerrik asko, Ricardo. Honekin, orduan, bozkatzera pasako gara. Hernaniko Udaleko lanaldi baterako bitarteko funtzionarioen izendapena edota aldi baterako lan-kontratudun langileen kontratuan probaldiaren araudia onartzearen aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.*

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO EBAZPENA

Kontuan hartu da udal honetako antolaketa batzordeak 2025eko ekainaren 19an aho batez emandako irizpena.

Horiek horrela, Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

Lehenengoa. Hernaniko Udaleko aldi baterako bitarteko funtzionarioen izendapena edota aldi baterako lan-kontratudun langileen kontratuan probaldiaren xedapena onartzeko proposamena egiten da. (erabaki honen eranskin gisa erantsi dira).

Bigarrena. Xedapena indarrean jartzea Hernaniko Udaleko Osoko bilkurak erabakia onartu eta hurrengo egunetik aurrera eta langileei horren berri ematea.



7. MOZIOA ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUA: «ESPAINIAKO GOBERNUARI NEURRI HAUEK HAR DITZALA ESKATZEKO ISRAELI, PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUEI ETA HERRITARREI DAGOKIENEZ».

Alkatea: Honekin mozioen tartera pasako gara. Bi mozio dauzkagu, gai berdinen inguruan, gutxi gorabehera. Palestinan bizi den egoeraren ingurukoak biak. Batetik, eta ordena honetan landuko ditugu erregistro data errespetatuz. Elkarrekin-Podemos udal taldeak aurkeztua izango litzateke zazpigarren puntuan bozkatuko duguna eta jarraian pasako ginateke EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeek aurkeztu duzuen lantzerara.

Beraz, esan bezala, lehenengo Elkarrekin-Podemos udal taldeak aurkeztutakoa daukagu. Zuen da hitza.

Lurdes López: (Mozioa irakurtzen du).

Alkatea: Eskerrik asko, Lurdes. Erronda irekiko dugu zerbait esateko baldin badago.

Itsaso Lekuona: EH Bildu udal taldetik guztiz ados mozioarekin.

Alkatea: Ados. Zuzenean bozkatzera pasako gara, orduan. Elkarrekin-Podemos udal taldeak aurkeztu duen Espainiako Gobernuari neurri hauek har ditzala eskatzeko Israeli Palestinako lurralde okupatuei eta herritarrei dagokienez mozioaren aldeko botoak? EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos udal taldeak. Kontrako botoak? Ez dago kontrako botorik. Eta, abstentzioak? EAJ udal taldea eta Euskal Sozialistak udal taldea. Beraz, mozioa onartutzat ematen da.

Bozketaren emaitza

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	13	1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Iburguren Etxeberria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano. 6. Asier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. 12. Jaione Aristregui Cao. 13. Lurdes López Gorrotxategi.
KONTRA	0	
ABSTENTZIOAK	5	1. Andoni Amonarraiz Gómez. 2. José Antonio Cuesta Solé. 3. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 4. Ismael Ganchegui Gonzalez. 5. Ricardo Crespo Rubio.

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO MOZIOA



Palestinako herriaren egoera krisi humanitario larria da, nazioarteko komunitateari eragiten diona. Hamarkadetan zehar, Israelgo Estatuak nazioarteko zuzenbidea sistematikoki urratu du, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) eta Nazioarteko Justizia Gorteak adierazi duten bezala. Ekintza horiek, nazioarteko araudiak ez betetzeaz gain, milioika pertsonaren giza duintasunaren eta oinarrizko eskubideen aurkako atentatua ere badira.

Azken hilabeteetan, indarkeriak gora egin du gatazkan. Gazako eta Zisjordaniako bereizi gabeko bonbardaketek bizitegi-eremuak eta funtsezko azpiegiturak suntsitu dituzte, hala nola ospitaleak, eskolak eta oinarrizko hornidura-sistemak. 50.000 zibil baino gehiago hil dituzte, haur asko barne, eta osasun-langileei, kazetariari eta erreskatatzaileei egindako erasoek eta Israelek ezarritako blokeo luzeak biztanleria gosetean eta aurrekaririk gabeko krisi humanitarioan murgildu dute; konboi humanitarioei egindako erasoek, berriz, laguntza iristea eragozten dute eta herritarren sufrimendua larriagotzen dute. Neurri horiek zigor kolektibotzat jotzen dira, eta NBEko adituek ekintza genozida posibletzat salatzen dituzte, eta erantzun irmoa eta premiazkoa behar dute.

Bereziki kezkarria da emakume eta neska palestinarren egoera, genero-indarkeriaren maila altuei aurre egiten baitiete. Palestinako Lurralde Okupatuari buruzko Nazioarteko Batzorde Independentek sexu-indarkeria zapalkuntza-tresna gisa erabiltzea dokumentatu du, eta krisi hori arintzeko eta berreraikuntza inklusibo eta bidezkoa bermatzeko neurrietan genero-ikuspegia txertatzeko beharra azpimarratu du.

Testuinguru horretan, milaka palestinar gosete krudelenetik, jazarpen politikotik, atxiloketa administratiboetatik eta beren bizitzarako eta osotasun fisikorako arrisku larritik ihes egiten saiatzen ari dira, biztanleria zibilaren eguneroko hilketak, bereizi gabeko tortura eta sexu-indarkeriako delituak, gosea erabiltzeaz gain, oinarrizko zerbitzu guztiak eta bizitzarako funtsezkoak diren azpiegiturak, kultura eta lurra suntsitzea aspaldidanik etengabeak direlako ebidentziaren ondoren.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, bakearen, justiziaren eta giza eskubideen balioekin konprometituta, ezin du eta ez du geldirik egon behar. Udal eremutik, gure ahotsa eta justizia eskatzen dutenena batu behar ditugu, neurri zehatzak eta premiazkoak eskatu behar ditugu, eta Palestinako herriaren sufrimendua arintzen eta etorkizun bidezkoago eta gizatiarrago bat eraikitzen lagun dezaketen ekintza guztiak antolatu behar ditugu.

Horiek horrela, Hernaniko Udalbatzak honako hau erabaki du:

1. Hernaniko Udalak publikoki eta erabat gaitzesten ditu genozidioa, giza eskubideen urraketak eta herri palestinarren aurka egindako gerra-krimenak, nahitaezko desplazamenduak, funtsezko azpiegituren suntsipena eta osasuna eta gosea gerraarma gisa erabiltzea barne.
2. Espainiako Gobernuari eskatzea armen erabateko enbargoa ezar diezaiola Israeli, armak salerosteko, segurtasunerako edo teknologia militarrekin edo erabilera bikoitzarekin lotutako edozein kontratu berehala etenda, eta Espainiako portu eta aireportuetan barrena armamentua Israelera igarotzea baimentzen ez dela bermatuta.
3. Erakunde guztiei eskatzea Israelekin harreman diplomatikoak eta komertzialak eteteko, bai eta nazioarteko kultura-, kirol- eta ikasketa-ekitaldietatik kanpo uzteko ere, eta Europar

Batasunaren eta Israelen arteko Elkartzeko Akordioa berrikus dadin eskatzea, eta akordio horren aplikazioa etetea, Palestinan nazioarteko ebazpenak eta giza eskubideak errespetatzen ez diren bitartean.

4. Israelen aurkako zigor ekonomiko sendoak sustatzea, lurralde okupatuetan jardutennduten edo okupazioa babesten duten enpresetan desinbertsioa barne, eta inbertsioen eta merkataritzaren berrikuspen etikoa bermatzea, horiek oinarritzeko eskubideen urraketan konplizitate izatea saihesteko. Euskal erakundeei bakearen izenean beste agintari edo enpresa israeldar publiko edo pribatu batzuekin mota guztietako kontratuak, hitzarmenak edo lankidetzak deuseztatzen zaie, uste osoa izanik presio-neurri guztiak beharrezkoak direla gaur egun inbasio bidegabe eta apartheid erregimen honekin amaitzeko.

5. Gaza eta Zisjordaniarako laguntza humanitarioko mekanismoak indartzea, kaltetutako herritarrentzat funtsezkoak diren edateko ura, elikagaiak, endagaiak eta bestelako hornidurak berehala eta mugarik gabe eskuratzea ziurtatuz. Israelgo agintariei eskatzen diegu Gazarako sarbide humanitarioa eta laguntza ematea premiaz errazteko, lurralde honen blokeo anker eta ilegala bertan behera uzteko eta Palestinako Lurralde Okupatuaren okupazioa amaitzeko, 2024ko uztaileko Nazioarteko Justizia Gortearen iritzi aholku-emailea praktikan jarritz, zeinak Israelen Gaza eta Zisjordaniako okupazioa, Ekialdeko Jerusalem barne, legez kanpokotzat jotzen zituen.

6. Liskarrak berehala eteteko eta nazioarteko erakundeei ikuskatutako su-etena ezartzeko eskatzea, biztanleria zibilaren segurtasuna eta babesia bermatzeko.

7. Gatazkarekin zerikusia duten ekimen guztietan genero-ikuspegia txertatzea, neurri espezifikoak sustatuz emakume eta neska palestinarrak babesteko, bai eta berreraikuntza- eta bake-prozesuetan haien parte-hartze osoa eta eraginkorra bermatzeko ere. Erreparazio-prozesu horrek nazioarteko mekanismo bat sustatuko du, NBEk gainbegiratua, itzultzeko eskubidea bermatzeko (194/III Ebazpena), kalteak ebaluatzeko eta konponketak ezartzeko.

8. Gerra-krimenen, gizateriaren aurkako krimenen eta genozidioaren erantzuleak justiziara eramateko nazioarteko ekimenak aktiboki babestea, eta nazioarteko auzitegiekin lankidetzan aritzea, delitu horiek zigorrak gabe gera ez daitezela bermatzeko.

Mozio honen bidez, Hernaniko Udalak berretsi egiten du justiziaren, bakearen eta giza eskubideen errespetuaren printzipioekin duen konpromisoa. Gure tokiko erantzukizunetik, dei irmoa eta argia egiten diogu ekintza globalari, gehien sufritzen dutenak babesteko eta inongo herrik jasan beharko ez lukeen egoera larri bati amaiera emateko.

8. MOZIOA EAJ-PNV ETA PSE-EE UDAL TALDEEK AURKEZTUA «PALESTINA».

Alkatea: Jarraian gai berdina lantzen duen, ulertzen dut beste ikuspuntu desberdin batekin lantzen duen mozioa. Kasu honetan EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeek aurkeztua da. Ricardo, zurea da hitza.

Ricardo Crespo: Bi alderdien artean adostutako mozioa da eta beraz, bi alderdiek irakurriko dugu.



Mikel Gurutzeaga: (Mozioa irakurtzen dute).

Alkatea: Eskerrik asko Ricardo eta Mikel. Erronda irekiko dugu udal taldeek zerbait esateko baldin badute.

Lurdes López: Mozio hau Israelek Gazan egindako operazio militarren aipamenarekin hasten da, «Hamasek 2023ko urriaren 7an egindako eraso izugarrien ondoren hasi zirenak. Eraso horiek gerra krimenak dira, eta erakundeak 1.250 pertsona baino gehiago hil eta 250 bahitu baino gehiago bahitu zituen», dio.

EAJk eta PSEk aurkeztutako mozio honek ahaztu egiten du Nakba duela 77 urte izan zela. 77 urte hauetan milaka izan dira palestinar biktimak. Behartutako joan-etorrien, bortxaketen, jipoi, espetxeratzeen, herriak suntsitzearen eta hilketen biktimak. Hilketak ere bai, baina ez dakigu zenbat. Biktima horiek ez dutelako kuantifikatuak izateko eskubiderik ere. Ez dakigu, eta EAJk eta PSEk gerra-krimetzat jotzen dituzte ekintza horiek.

Bestalde, mozio honek EB interpelatzen du. Urriaren 7ko erasoen ondoren, Ursula von der Leyen Batzordeko presidentea Tel Avivera joan zen, eta hitz hauek esan zituen: «Israelen samina eta bere burua defendatzeko eskubidea aitortzen badugu bakarrik izango dugu sinesgarritasuna Israelek demokrazia gisa erreakzionatu behar duela esateko». Eta gaineratu zuen: «Ziur nago Israelen erantzunak erakutsiko duela demokrazia bat dela».

Urte eta erdi geroago, Europar Batasunak Israeli defendatzeko eskubidea bermatzearen ondorioak ezagutzen ditugu. 50.000 zibil baino gehiago hil dira, 11.000 desagertu hondakinen azpian, gosetea eta genozidioa.

Palestinar herriari egiten zaion edozein keinu edo mesede babestu egin behar dela uste izan arren, ezin dugu honen alde egin. Hau da, mozio honen aurka bozkatuko dugu.

Itsaso Lekuona: Ildo beretik, eskertzen da alde batetik EAJk eta PSEk zuen diskurtsoan posizioan egin duzuen garapena. Baina esan bezala, ia 56.000 hildako beranduago dator garapen hau. Mozioa bera eta puntuetako lehenengoa ere hastea urriaren 7tik, hor kokatzea, uste dugu hori ez dela onargarria. Egia da urriaren 7ak sortu zuela arreta mediatikoa, ez geundelako ohituta Gaza munduko espetxerik handiena bihurtua zuelako Israelek eta ez geunden ohituta harresi hori gairitu eta heriotza beste aldera pasatzearekin.

Baina 2023an bertan, bilaketa azkar bat egiten baduzue, abuztuan 50 hildako baino gehiago egon ziren, maiatzean Israelek Gaza bonbardatu zuen, 2022an 200 palestinar baino gehiago hil zituen Israelek, eta horrela hasi gaitzke atzera eta estatu sionista sortzen den arte. Orduan, guretzat ez da onargarria hasiera data urriaren 7an jartzea.

Hala ere, hau esanda, lehenesten dugu Palestinaren aldeko neurri oro babestea eta horregatik gure proposamena da mozio hau puntuka bozkatzea, gure kasuan lehenengo puntu horrekin ez gaudelako ados.

Alkatea: Proposamena egiten zaizue mozioa aurkeztu duzuen taldeei puntuka bozkatzea onartzen ote duzuen.



Ricardo Crespo: Gure partetik behintzat, lehenengo puntua ere oso garrantzitsua da eta ez genuke onartuko puntuka bozkatzea.

Alkatea: Ados. Erronda bat egin dugu eta ez dakit bigarren bat beharrezkoa ote den.

Andoni Amonarraiz: Hemen aurkezten den mozioa beste udalerrri batzuetan aurkeztu da, eta ez du herrien arteko gatazkaren errealitate historikoa aztertu eta kritikatu nahi, une jakin batekoa baizik. Mozioak dioenarekin hasten da egoera, eta, zoritxarrez, bere horretan jarraitzen du.

Mozio honen kontua ez da herri horien arteko liskarraren historia aztertzea.

Eta mozioari dagokionez, mozioa osorik bozkatu beharko litzatekeela uste dut.

Alkatea: Ados. Proposamena ez da onartzen, orduan.

Itsaso Lekuona: Ados. Esan bezala, eta esandakoan berretsita, hala ere uste dugu beste puntu horiek guztiak babestea garrantzitsua dela, oraintxe Palestinak behar duela babes aldarrikapen ahalik eta gehienak izatea eta, beraz, aldeko bozka emango dugu.

Alkatea: Ados. Beraz, bozkatzera pasako gara. EAJ-PNV eta Euskal Sozialistak udal taldeek aurkeztu duten Palestina mozioaren aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeak. Kontrako botoak? Elkarrekin-Podemos udal taldea. Beraz, mozio hau ere onartua gelditzen da.

BOZKETAREN EMAITZA

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	16	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Ibarguren Echeverria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano. 6. Asier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. 12. Andoni Amonarraiz Gómez. 13. José Antonio Cuesta Solé. 14. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 15. Ismael Ganchegui Gonzalez. 16. Ricardo Crespo Rubio.
KONTRA	2	<ol style="list-style-type: none"> 1. Jaione Aristregui Cao. 2. Lurdes López Gorrotxategi.
ABSTENTZIOAK	0	

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO MOZIOA

Israelek Gazan egindako operazio militarretan, Hamasek 2023ko urriaren 7an egindako eraso izugarrien ondoren hasi zirenak, gerra krimenak direnak eta erakundeak 1.250 pertsona baino gehiago hil eta 250 gatibu baino gehiago bahitu zituenak, Israelek ekintza ugari jarri ditu abian palestinar herritarrei kalte konpenezina eragiteko.

Urtebete baino gehiago da mundua Gazako Zerrenda okupatuan heriotza eta suntsipen maila pentsaezin baten lekuko dela. Israelek Gazako populazio palestinarren aurka egindako eraso basatiak dozenaka mila pertsona hil ditu, familia osoak desagerrarazi, bizitegi-auzoak suntsituta, azpiegitura kritikoak suntsituta eta 1,9 milioi palestinar behartuta mugitu —Gazako Zerrendako biztanleriaren % 90 baino gehiago—, aurrekaririk gabeko hondamendi humanitarioa eraginda.

Mundua begira dagoen bitartean, Israelek bere kabuz hautsi du su-etena, eta zigorgabetasunez eraso gupidagabeak egiten jarraitzen du, palestinarren bizitzak etengabe galtzea eragiten dutenak, Gazako hondamendi humanitarioak okerrera egiten jarraitzen duen bitartean. Are gehiago larriagotuz, ahal bada, NBEk ohartarazi berri du 14.000 haurtxok desnutrizio larria dutela Zerrendan.

Hernaniko Udalak euskal herritarrek duela urtebete baino gehiagotik oihukatzen dutena eskatzen du:

- a) 2023ko urriaren 7an Hamasek egindako eraso bortitza gaitzestea.
- b) Gazako populazio zibil palestinarren aurka egindako genozidioa irmo eta ñabardurarik gabe gaitzestea.
- c) Berehalako su-eten iraunkorra eskatzea, indar militarrek lurralde okupatuetatik erretiratzea, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa, nazioarteko ebazpenak eta giza eskubideak erabat errespetatzea.
- d) EBri eskatzen diogu egitateen larritasunaren aurrean jarduteko eta Israelekin duen akordio komertzial eta politikoa berrikusteko.
- e) Gazako Zerrendan laguntza humanitarioa sartzeko bide seguruak bermatzea, lurralde horren blokeo ankerra eta legez kanpoko kentzea eta Palestinar Lurralde Okupatuaren okupazioa amaitzea, Israelek Gaza eta Zisjordania, Ekialdeko Jerusalem barne, okupatzea legez kanpokatzen jotzen zuen Nazioarteko Justizia Gortearen 2024ko uztaileko kontsulta-iritzia praktikan jarritz.

- f) Europar Batasunak bere eragina eta boterea erabiltzea giza eskubideen, justiziaren eta kontuak ematearen alde. Hain zuzen ere, Genevako Hitzarmenekiko errespetua bermatzeko, estatu guztiek gatazkako aldeei armak transferitzen etetea eskatzen baitu, gutxienez, nazioarteko zuzenbidea urratzeagatik kontuak ematea bermatzeko lankidetzan aritzea, eta nazioarteko erakunde eta mekanismoak babestea, Nazioarteko Zigor Gorteak eta NBERen Ikerketa Batzordeak Palestinar Lurralde Okupatuari buruz egindako ikerketak barne.
- g) Europar Batasuna aurrez aurre egotea Gazan presentzia militar iraunkorra ezartzeko, mugak aldatzeko edo palestinar herritarrak Gazatik edo Zisjordaniatik deportatzeko edozein ahaleginen aurka, eta behartutako lekualdaketa hori Genevako Laugarren Hitzarmenaren arau-hauste larria dela eta gerrako krimena dela onartzea.
- h) Hernaniko Udalak berriz ere babesten du Ekialde Hurbileko Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziak (UNRWA) urgentzia humanitarioko arazoietan oinarrituta egiten duen lana.
- i) Hernaniko herriaren elkartasun aktiboa adieraztea Palestinako herriari eta gerren biktima guztiei eta munduan gertatzen diren giza eskubideen urraketa justifikaezinei.
- j) Akordio honen berri ematea Espainiako Gobernuko Presidentzari, Kanpo-Arazoetako Ministerioari, Europako Parlamentuari, Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziari (UNRWA) eta gizarte- eta giza eskubideen aldeko erakundeei.

9. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkatea: *Hasieran aipatu dut gaur ez-ohiko deialdian egin dugula osoko bilkura eta honek esan nahi du eskaera eta galderen tarterik ez dagoela. Ez-ohiko deialdian egin da datorren astean Hernaniarentzat eta hernaniarrentzat oso berezia den datetan sartuko garelako, urte osoan zain egoten garen sanjoanetan sartuko garelako. Hartu ditzagun kaleak, disfrutatu dezagula Hernanik egun hauetan eskaintzen digun ekintza piloaz eta eskaintzen digun festaz.*

Izango da, seguru aski, festa honetaz gozatzeko aukerarik izango ez duenik, hemen ez delako edo bere egoerak ahalbidetzen ez diotelako. Gure animo handienak gozatu ezin izango duten horiei. Eta animoak ere egun hauetan lanean ariko diren udal langile zein herri eragileetako ehundaka boluntarioei, ikuskizunak eskaintzen zein txosnetan txandak egiten edo dena delakoa egiten. Denen lanari esker izango ditugulako, espero dugu, sanjoan zoragarri batzuk.

Hortaz, goza dezagula, libre ibili gaitzela festetan eta ondo pasa.

Hernani, 2025eko ekainaren 19a

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

O.E

HERNANIKO ALKATEA

Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna,
QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikokoaren bidez egiazta dezakezu.

